



1. Gogoetan

Gaurkoan, beste aditu kolonbiar bat ekarriko dugu gurera. Yolanda Reyes, irakasle eta idazleak, proiektu interesgarri bat du martxan Bogotan: [Espantapájaros](#) Tailerra. Bertan hurren artean irakurketa sustatzen dute, txiki txikitatik hasita. Eta aldi berean, beste hainbat gai artistiko ere lantzen dira. Web gunean artikulua interesgarri ugari aurkitu daitezke, baina oraingoan bat azpimarratu nahi genuke:

[Irakurketaren lekua irakurle baten bizitzan](#). Bertan, Reyes-ek, *Espantapájaros*-en sorreraz hitz egiten digu, baina batez ere, haurrak irakurketarekiko bizitzen dituen fase desberdinak azaltzen ditu epez epe.

2. Egitasmoa martxan

Ikasturte hasierako buletinean azaldu genuen moduan, irakasleen prestakuntza eta gurasoen prestakuntza saioak abian dira Urkabustaiz, Laudio eta Arrasaten.

Urte berriarekin batera, herri hauetan beste bi ekimen jarriko dira abian egitasmoaren hiru gune nagusiak (liburutegia, eskola eta etxea) elkarrekin harremanetan jartzeko. Ekimen hauen xedea haurraren inguruan dauden bitartekari guztiak, guraso, irakasle eta bibliotekariak, elkarlanean jartzea da, guztien arteko zirkuitu bat osatzu.

- Alde batetik, biblioteketan [Maletak](#) jasoko dituzte (Urkabustaizko kasuan maleta berriak), familiek etxera maileguan eraman ahal ditzaten.
- Beste alde batetik, Haur Hezkuntzako gela bakoitzean [Motxila Txiki](#) bat banatuko da herri hauetan. Horrela, motxila aldean hartutik, haurrak -gurasoak lagunduta- bibliotekatik pasatuko dira liburu eder bat aukeratzera.

3. Hausnarketa gunean: haur poesia

Aurreko buletin batean aipatu genuen BM kanpainaren baitan dauden herrietan gurasoek betetzen dituzten galdekizunetan agerturiko datu deigarri bat: gurasoek aitortzen dute oso gutxitan aukeratzeko poesia liburuak mailegurako bibliotekan.

Egoera hau ikusita, azpimarratzekoa da poesia dela haurraren hizkuntz adierazpenetik gertuen dagoen literatur generoa: hitz jokoak, aho korapiloak, igarkizunak, kantuak... Poesiaren erritmoaz, neurriaz eta errimaz baliatzen dira haurrak hizkuntza bereganatzeko, haiekin jolastuz eta gozatu.

Hobeto azaltzeko irakurgai jartzen dizuegu [Bihotzaren taupadez](#) artikulua, *Kolonbiako Irakurketako 9. Biltzarrean* Itziar Zubizarretak aurkeztu zuenaren laburpen bat. Dakizuen bezala, gainera, gure egitasmoaren baitan tradiziozko poesiara hurbiltzeko asmoarekin [liburuak eta diskoak](#) argitaratu ditugu. Eta egungo poesia lantzeko aukera ere badago, hemen luzatzen dizuegu gomendio zerrendarekin adibidez: [egungo haur poesia euskaraz](#).

Azkenik, beste adibide bat: Galtzagorriren ekimenez eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin sortu den Klis-Klasikoak liburu sortaren baitan, berrargitaratu berria da [Maria Goikoak batbirulau!](#) (Alberdania-Erein-Igela) Kantuak, hitz jolasak, jolas grafikoak, txisteak... biltzen dira bertan bi maisu handiren eskutik, Anjel Lertxundi eta Antton Olariaga, hain zuzen ere.

4. Ongi pasatzeko!

IrakurketaREN bilakaeraz aritu garenez, [argazki batzuk](#) ekarri ditugu gaurkoan. Arte erakusketa batean geunden, artistaren froga liburuei begira eta aita bat inguratu zen 8 hilabeteko haurra besoetan. Haurra algaraka hasi zen liburuari begira, eta aita berehala liburua erakutsiz: "Hau horia, eta hori amatxo..."

Haurrak sei hilabete dituenetik, liburuaren aurrean eseri eta harekin formak, koloreak, hitzak eta istorioak konpartitzeko aukera daukagu. Aurrerago, liburu ederrak aukeratzeko lagunduko diegu, eta liburu horiek beraiekin partekatuko ditugu. Ikusi, berriz ere, gure [liburu zerrenda](#) txikia.